



Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia, 2026koa

Baztango Udalak euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko konpromiso irmoa du. Izan ere, euskara Baztango hizkuntza izanik ere hainbat gizarte esparrutan haren erabilera apala da.

Horregatik Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak bere 39. artikuluan ezarri zuenez, Baztango Udalak euskararen ezagutza handitzea eta haren erabilera ziurtatzea nahiz gizartearen arlo guztietan orokortzea xede duela, jarduerak abiaraziko ditu.

Gainera Baztango Euskararen Plan Estrategikoan (2024-2027) hirugarren ardatzean “Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu” aipatzen da eta helburua betetzeko ekintza zehatzetako bat ondokoa da: “Euskara ikasteko dirulaguntzarekin jarraitzea”.

Sustapen jarduera horien artean Baztanen euskara ikasten duten herritarrendako dirulaguntzak daude eta horiek arautzeko honako baldintza eta irizpideak onartu ditu Baztango Udalak 2026ko maiatzaren 21ean Tokiko Gobernu Batzordean.

OINARRIAK

1- Xedea

Deialdi honek xede hau du: euskara ikasteko ikastarorik egin duten baztandarrei horrek dakarkien matrikula gastuetarako dirulaguntza emateko modua arautzea.

2- Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak

2.1- Diruz lagunduko dira 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikula gastuak. Euskara ikasteko edo euskaraz alfabetatzeko ikastaroak estentsiboak edo trinkoak izan daitezke, bai eta barnetegiak ere. Autoikaskuntzaren kasuan Udalak eskabide bakoitzaren bideragarritasuna aztertu eta aurrekontuaren arabera erabakiko du.

2.2- Eskatzaileak maila bereko ikastaro bat baino gehiago egin arren, bakarrarengatik jasotzen ahalko du dirulaguntza deialdi bakoitzean.

2.3- Garraioa eta materiala ez dira diruz lagunduko. Baztango euskaltegian bere mailako talderik sortuko ez balitz bertze euskaltegi batera joateagatik sortutako gastuak ez dira lagungarri izanen.

3- Onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek:

- a. 16 urte baino gehiago izatea.
- b. Baztanen erroldaturik egotea urtebeteko antzinasunez eta egoera horretan irautea diruz lagunduko den aktibitateak dirauen denbora osoan.
- c. Zergen ordainketa nahiz Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean edukitzea eta Baztango Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izatea.
- d. 2025-2026 ikasturtean (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra) euskaltegi batean euskara ikastaroren batean matrikulaturik egotea eta haren matrikula ordaindurik izatea.
- e. Euskaltegiak ikastaroaren gutxienez % 80ko asistentzia / aprobetxamendua egiaztaturik izatea. Autoikaskuntza programa batean ikasten duten ikasleek ere horren aprobetxamendu-egiaztagiria aurkeztu behar dute.
- f. Nafarroako Gobernuak euskara ikasteko dirulaguntza deialdia aterako balu hura ere eskatzea beharrezkoa izanen da, salbuespenak salbuespen¹.

4- Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1- Dirulaguntza hauek 2026 urteko aurrekontuen dirulaguntzen diru-sailaren kargura, euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia izenekora joanen dira. Horretarako 8.000 €ko aurrekontua dago.

4.2- Dirulaguntza hau gehienez ere 450 eurokoa izanen da. Laguntzaren zenbatekoa eskatzailearen errenta aitorpenaren arabera izanen da, eta aurkezten diren eskabideen arabera egingen da aurrekontuaren zatiketa.

4.3- Aurrekontuetan aurreikusi den diru-kopurua, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

4.4- Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 450€ baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

5- Deialdiaren publizitatea

Deialdi hau honako hauetan iragarriko da: *Nafarroako Aldizkari Ofizialean*, Baztango Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean.

6- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1etik 30era (14:00ak arte) izanen da. Epea luzaezina izanen da.

7- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

¹ Estatu Espainiarreko dokumentazio ofizialarekin arazoak dituztenak.

- a. Eskaera orria behar bezala beteta (erantsita dago eredu).
- b. Nortasun agiriaren fotokopia.
- c. Ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, honako ezaugarriak zehazten dituena: ikastaroaren iraupena, maila, matrikularen kostua eta dirulaguntza eskatzen duen ikasleak izan duen asistentzia portzentajea.
- d. Matrikularen ordainagiria(k).
- e. Langabeek Gizarte Asegurantzak emandako lan-bizitza izeneko agiria aurkeztu beharko dute, eguneratua. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.
- f. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortenaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitortpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriarekin frogatu.
- g. Eskatutako dirulaguntzen aitortpena, helburu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden adierazi beharko da. Azkenengo kasu horretan kontzesioari buruzko ebatzenaren kopia erantsiko da.
- h. Zinpeko aitortpena: zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.

g. eta h. puntuetan eskatzen dena aurkezteko eredu bat atxikita doa bukaeran.

Deialdian parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko da (Baztango Udala. Erregistroa. Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

8- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun natural emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

9- Ebazpena

Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzean eman dion organoak hartuko du. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

10- Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren; banku transferentzia bidez eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

11- Bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada, hau da, diru laguntzaren zenbatekoak ezin izanen du jardueraren guztizko kostua gainditu.

12- Dirulaguntzen itzulketa

Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondoan azaltzen diren kasuetako baten bat gertatzen bada:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c. Euskara ikasteko dirulaguntza toki batean baino gehiagotan eskatzearen ondorioz, onuradunak matrikulan gastatutakoa baino gehiago jasotzen badu, Baztango Udalari diru-laguntza itzuli beharko dio, osorik edo parte bat, matrikularen guztizko zenbatekoraino.
- d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

13- Arau-hauste eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

14- Datuen babesa

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

15- Aplikatutako araudia

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

16- Errekurtsoak

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:

- a. Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.



BAZTANGO
euskara
ZERBITZUA



Baztango
Udala

Euskara ikasteko dirulaguntzak
Eskabidea/ instancia de solicitud

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak/Nombre y apellidos:
NAN/DNI:
Helbidea/Dirección:
Posta kodea eta herria/Código postal y localidad:
Telefonoa/Teléfono:
Helbide elektronikoa/ E-mail:
Kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)/ Número de cuenta corriente (Código IBAN + 20 dígitos):
2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko ikastaroek ekarritako matrikula gastua, guztira/ Gasto total realizado en el curso 2025-2026 en matrícula de cursos para aprendizaje de euskera: _____ €

(Data eta sinadura / fecha y firma)

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA

AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE DE EUSKERA: DECLARACIÓN JURADA

Eskatzaileak hau aitortzen du/ *El/la firmante, cuyos datos se indican, DECLARA:*

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan / *No hallarse inmersa en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.*
- Egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aitzinean dituenak, baita Baztango Udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere / *Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Baztan.*
- Helburua edozein izanik, dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei / *Que ha solicitado subvención a las siguientes entidades:*

ERAKUNDEA <i>Entidad</i>	ZENBATEKOA <i>Cantidad</i>	EGOERA <i>(Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta / Sin resolver, resuelta pero sin cobrar o cobrada)</i>

- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana / *Que aparte de esta solicitud de subvención no ha solicitado ni recibido ninguna otra subvención para el mismo fin, concedida por otra entidad pública ni privada.*
- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Baztango Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain / *Que en el caso de solicite ayuda para el mismo fin a otra entidad pública o privada, se compromete a comunicárselo al Ayuntamiento de Baztan.*

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du / *Y, para que así conste, firma la presente.*

(Data eta sinadura / *fecha y firma*)